



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

**HAURRENTZAKO (LUDOTEKA) ETA NERABEENTZAKO (GAZTELEKUA) ZERBITZUEN ESKAINTZA
LEHIAKETA BIDEZKO PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA
ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen arabera egingo den kontratuaren xedea izango da Soraluzekeo udalerrian haurrentzako (Ludoteka) eta nerabeentzako (Gaztelekua) zerbitzuak eskaintzea. Kontratua horretarako prestatutako lokaletan burutuko da eta Baldintza Administratiboan eta Baldintza Teknikoan Pleguetan, kontratuaren esleipendun gertatzen den eskaintzan eta espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera eskainiko da. Horiek guztiek kontratuzko izaera edukiko dute.

2. EXEKUZIO-EPEA

Prestazioa eskaintzeko guztizko epea bi (2) urtekoa izango da, eta gehienez ere, bi luzapen egin ahal izango dira. Luzapen bakoitzaren iraupena urtebetekoa izango da, eta horretarako, alde zuzenetik, hau da, kontratua edo urteko luzapena bukatu baino hiru hilabete lehenago, esleipendunak eskaria egin eta Soraluzekeo Udalak berariazko akordioa hartu beharko du. Hala, kontratuaren guztizko iraupena, luzapenak barne, ezin izango da 4 urtetik gorakoa izan.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren aurrekontua, 98.722,26 eurokoa izango da urteko, BEZ barne. Lizitaziogileek prezio hori hobetu ahal izango dute, beharpena eginda. Prezioa gainditzen bada, aurkeztutako eskaintza osoa lehiaketatik kanpo geldituko da.

Lizitaziogileek kontratuaren xede diren lanen buruzko azterketa ekonomiko xehakaturik aurkeztu beharko dute, eta lan horien atalen gastuak adierazi beharko dituzte.

Aurkezten diren proposamenetan, banatuta emango dituzte oinarri zergapegarria eta BEZari dagokion zenbatekoa. Halaber, kontratua arautzen duen araudiari jarraiki, ezar daitezkeen tipoa eta zenbatekoa ere adierazi beharko dira.

Ondorio guztietarako, uste izango da eskaintzetan eta onartutako prezioetan sartuta daudela enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuak betetzeko egin beharko dituen gastu guztiak: hala nola, orokorrak, finantzarioak, ongintzazkoak, aseguruak, materialak eta joan-etorriak, haren ardurapeko langile teknikoan ordainsariak, dietak, programazioak, programazioarako materiala, bulegoko materiala, tasak eta era guztietako zergak, eta batez ere, BEZ; betiere, kontratua arautzen duen araudiaren arabera, eta kontratua indarrean dagoen bitartean ezar edo alda daitezkeen gainerako gastu guztiak. Horren ondorioz, gastu horiek ezin izango dira aparteko partida gisa jaso.

Haurrentzako zerbitzuaren erabiltzaileek administrazioak ezartzen dituen kuotak ordainduko dituzte eta kuota horiek administrazioarentzat izango dira. Hala, esleipendunak ezin izango ditu kuotak bereganatu.

Neurriz kanpoko eskaintzak edo eskaintza ausartegiak direla-eta, Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorrean ezarritakoa izango da kontuan.

4. FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaindu ahal izateko, aurreikusita dago finantzazioa Soraluzeko Udalaren aurtengo aurrekontuaren kontura, "Gazteleku eta ludoteka zerbitzua" izeneko 1 1500.226.06.337.20 zenbakidun diru-atalean. Era berean, aurrekontuen arloan eskumena duen organoak hitz ematen du, kontratu horrek eragindako hurrengo aurrekontuetan, beharrezkoak diren kredituak gordeko dituela.

5. ORDAINTZEKO ERA

Kontratuaren prezioa hamabi hilekotan banatuta ordainduko da. Zati guztiek zenbateko bera izango dute. Faktura zerbitzua eskaini eta hurrengo hilabeteko lehenengo 15 egunetan aurkeztu beharko da. Udalak faktura onartu ondoren ordaindu egingo da, indarrean dagoen legediaren arabera.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ekonomia Desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legean ezarritakoaren arabera, kontratu hau dela-eta, ez da prezioak berrikusteko aukerarik izango.

7. BERMEAK

Behin-behineko bermea

Ez da eskatuko.

Behin betiko bermea

Kontratuaren esleipendunak, hartutako obligazioak beteko dituela ziurtatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du. Bermea esleipenaren zenbatekoaren %5ekoa izango da, BEZ kenduta.

Berme hori jartzeko epea 10 lanegunekoa izango da, eskaintza ekonomiko egokienari buruzko jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren 96.1. artikuluan ezarritako era guztietan jarri ahal izango da. Dena dela, lizitaziogileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio baldintza hau betetzen ez baldin bada, Udalak ez du haien aldeko esleipena egingo.

Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 102. artikuluan ezarritakoaren arabera itzuliko da; behin bermea jartzeko epea igaro ostean, eta esleipendunak kontratua dela-eta hartu dituen obligazio guztiak bete ondoren.

8. KONTRATUA BETETZEA

Kontratatik berak izango du kontratua betetzeko ardura.



SORALUZeko UDALA AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Kontratua plegu honetan jasotako baldintzen arabera beteko da, eta hala badagokio espedienteari erantsitako baldintza teknikoen arabera. Kontratua Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean burutuko da. Administrazioak eskumen hauek erabiliko ditu, bai idatziz, bai ahoz.

Kontratua betetzen hasi aurretik, Udaleko zerbitzu teknikoek zerbitzuak eskaintzeko erabiliko diren lokalak ikuskatuko dituzte, eta esleipendunak lokalean dauden materialen eta altzarien inbentarioa egin beharko du. Akta egingo da, bi aletan. Aktaren ale bat kontratuaren espedientean jasota geldituko da, eta bestea esleipendunari emango zaio.

Kontratistari edo honen ardurapeko pertsoneri egotz dakizkiekeen egintzak edo hutsegiteak direla medio, kontratu honen bilakaera egokia eragozten baldin bada, Administrazioak egoki irizten dion neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, kontratua behar bezala bete dadin lortu ahal izateko.

Kontratu hau betetzeko izendatuko diren langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartuko du enpresari guztiei dagokien zuzendaritza aginteaz benetan, eraginkortasunez eta era jarraituan baliatzeko betebeharra. Bereziki, bere gain hartuko ditu ondorengoak: soldaten negoziazioa eta ordainketa; baimenen, lizentzien eta oporren emakida; ordezkapenak; laneko arriskuen prebentzioaren arloko lege betebeharrak; hala dagokionean, diziplina zigorren ezarpena; Segurtasunaren arloko betebeharrak, baita kotizazioen eta prestazioen ordainketa ere; eta halaber, enplegatuairen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik sortzen diren eskubide eta betebeharrak guztiak.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, plantillaren baitan integratuta dagoena.

9. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

1.- Kontratistak, baldintza tekniko eta administratiboetan ezarritako garaian, orduetan eta tokietan egin beharko ditu kontratuan ezarritako lanak, eta Soraluze Udalak kontratua interpretatzeko kontratistari emango dizkion argibideei jarraiki. Horretaz gain, Administrazioaren berriazko baimenik izan gabe, ezin izango dio kontratu osoa edo kontratuaren zati bat beste pertsona bati laga.

2.- Kontratistak, ezinbestean, lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta garbitasunaren arloan indarrean dauden lege xedapen guztiak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira. Zerbitzurako kontratatzen eta atxikitzen dituen langileek ez dute inolako harremanik izango Soraluze Udalarekin, eta kontratatzaileak kontratatzen dituen langileak inola ere ez dira Udaleko lanpostu zerrendako langile bihurtuko.

3.- Esleipendunak zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren ekipok, giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu, eta bere gain hartuko ditu langile horien mendekotasuna dela-eta sortzen diren gastu guztiak. Langileek ez dute inolako administrazio edo lan loturarik izango Udalarekin. Udalak, halaber, ez du inolako erantzukizunik izango, enpresaren eta langile horien arteko harremanen ondorioz sortzen diren harremanak direla-eta. Kontratuak dirauen bitartean sortzen diren hutsune guztiak bete beharko ditu, baita bajak eta oporrak ere.

4.- Urtero, Soraluze Udaleko haur eta gazteen sustapeneko Sailean, esleipendun den kontratistaren kontura dauden langileen Gizarte Segurantzako kotizazioei dagozkien TC1 eta TC2 agiriak aurkeztu beharko ditu.

5.- Esleipendunak instalazioen funtzionamendu egokia, txukuntasuna eta kontserbazioa bermatu beharko ditu. Horiek horrela, esleipendunak ordaindu beharko ditu informatikako eta bulegoko ekipoetan egin behar diren konponketa eta lan guztiak, kostua eta arrazoia kontuan izan gabe, baldin eta konponketa eta lan horien arrazoia berauei emandako erabilera okerra bada.

Era berean, esleipena bukatzen den unean, lagatako tresna guztiak egoera ezin hobean itzuli beharko ditu.

6.- Funtzionamendu gastuak, hala nola, energia, ura, telefonoa eta garbiketa Udalaren kontura izango dira. Eta esleipendunak horiek erabiltzerako orduan administrazio onaren printzipioa kontuan izan beharko du.

7.- Esleipendunak hirugarrengeoi egiten zaien kalte material eta pertsonal guztien gaineko erantzukizuna izango du. Hori dela-eta, erantzukizun zibilari dagokion aseguru bat egin beharko du, lanbide arloko arriskuak bermatzeko. Aseguruaren zenbatekoa, gutxienez, **600.000,00** eurokoa izango da. Azken finean, esleipendunak aseguru bat izan beharko du indarrean hirugarrengeoi eragindako kalteak estaltzeko, eta aldi berean, kontratu honen xede den jarduera burutzeko erabiltzen den lokalean eta Udalak kontratua betetzeko utzi duen materialean eragindako kalteak estaltzeko.

8.- Esleipendunak ezin izango du obrarik egin Soraluzeko Udalak baimenik eman gabe. Halaber, Udalak, zerbitzuaren funtzionamendua kontratuarekin bat datorren eta indarrean dauden lege xedapenak betetzen diren egiaztatzeko egiten dituen buruzko ikuskapen teknikoak eta ekonomikoak onartu beharko ditu.

9.- Kontratuaren xede den jarduera zergapetzen duten nazio, autonomia eta herri mailako zerga guztiak esleipendunak ordaindu beharko ditu.

10.- Esleipendunaren ardura izango da zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren administrazio lizentzia edo baimen guztiak lortzea. Esleipendunak bere izenean eskatu beharko ditu horiek.

11.- Beharrezkotzat jotzen diren lan edo informazio bilera guztietara joan beharko du. Horren ondorioz, ez du ordainketa osagarririk jasotzeko eskubiderik izango, zerbitzuaren ordutegian ere ez du eraginik izango.

12.- Programari atxikitako langileen artean gertatzen diren aldaketa guztiak lehenbailehen jakinarazi beharko dizkio haur eta gazteen sustapenerako Sailari, eta betiere, aldaketa horiek gertatu aurretik. Hori dela-eta, aldaketak egiteko, plegu honetan eskatzen den profila duten langileak jarriko dira.

13.- Zerbitzua eskaini bitartean gertatzen diren gorabehera guztien berri eman beharko du, gertatu eta ondorengo 24 orduetan, hutsik egin gabe.

14.- Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak bakarrik artatu beharko ditu.

15.- Kontratua bukatu ostean, behar bezain garbi eta ondo itzuli beharko ditu Udalak utzitako instalazioak, altzariak eta tresnak. Halaber, Udalak esleipendunaren esku utzi zituen baliabide lagungarriak konpondu edo berriak jarri beharko ditu, baldin eta apurketok enpresak eragindako erabilera okerrak edo utzikeriak eragindakoak balira.

10. LANGILEAK (SUBROGAZIOA)



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

SPKLTBren 120, artikuluan aurreikusitakoaren arabera, enpresa esleipendunak, gaur egun, esku artean dugun kontratuaren xede den zerbitzua eskaintzen ari diren langile guztiak, hau da, III. Eranskinean jasota ageri direnak, bere gain hartu beharko ditu kontratuan (eta II. Eranskina bete beharko du). Hala, langile horiek subrogatuta geldituko dira.

Kontratuan sartu behar diren langileen artean egongo dira, halaber, kontratuaren titularitate aldaketa egiten den unean, Aldi Baterako Ezintasun Egoeran, amatasun atsedendaldi egoeran, behin-betiko ezintasun egoeran, eszedentzian edo oporretan dauden langileak.

Subrogazioak inola ere ez die eragingo jabe akziodunei, kontratua laga duen enpresaren zuzendaritzako kideei edo erdi mailako arduradunei, ezta jabe, akziodun, zuzendaritzako kide edo erdi mailako arduradun horien odolkidetasunezko bigarren mailara arteko senideei ere.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren 219 artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazioko kontratu hau herri intereseko arrazoiak tarteko bakarrik aldatu ahal izango da, eta 1 Liburuaren V. Tituluan aurreikusitako eran, eta 211, artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki. Kasu horietan, kontratazio organoak erabakitzen dituen aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

12. HARRERA ETA BERMERAKO EPEA

Kontratuaren xede den zerbitzua eskaintzeari utzi eta, gehienez ere, hilabeteko epean, harrera egiteko egintza formala eta positiboa egingo da. Harrera egiteko, zerbitzuari buruzko behin betiko txostenaren kopia aurkeztuko da.

Era berean, hilabeteko epea ezarriko da, harrera formala egiten den egunetik aurrera. Epe hori berme bezala ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoa betetzeko.

Bermerako epe horretan, kontratistak egindako lanetan edo eskainitako zerbitzuetan egon daitezkeen akatsen edo hutsegiteen gaineko erantzukizuna izango du.

Epe hori igarota, Administrazioak eragozpenik ez badu, kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.

Nolanahi ere, bermea itzuli ahal izateko nahitaezko baldintza izango da, kontratu honetan eskainitako zerbitzuen esparruan sortu eta kobratu diren zerga-likidazioak direla-eta, ebazteko dagoen errekurtsorik ez egotea.

13. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

A. KONTRATATZEKO EPEAK EZ BETETZEA.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua betetzeko epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzen ez baditu, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan bermea galdu egingo da. Horretaz

gain, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,20 euro kontratuaren prezioan jasotako 1.000 euroko.

Berandutza dela-eta ezartzen diren zigorrak kontratuaren ehuneko bostaren multiplo bihurtzen direnean, Organo Kontratatzaileak eskumena izango du kontratua bertan behera uzteko; edo zigor berriak jarrita, kontratuarekin jarraitzea erabakitzeko.

Kontratua burutzerako orduan akatsak egiten baldin badira, Udalak zigorra jarri ahal izango du, kontratuaren aurrekontuaren % 10aren baliokidea den zenbatekoa duena.

Zigorrak Alkatetzak jarriko ditu, Soroluzeko Udalaren Kontratazio Mahaiaren proposamenari jarraiki, eta horretarako, entzunaldia eskainiko zaio interesdunari.

B. PRESTAZIOAK PARTZIALKI BETETZEKO BETEBEHARRA EZ BETETZEA

Kontratatzaileak, berari egotz dakizkiokeen arazoak direla-eta, kontratuan ezarritako prestazioak partzialki betetzen ez baditu, Administrazioak eskumena izango du kontratua bertan behera uzteko; edo kontratuaren prezio osoaren ehuneko hamarraren pareko zigorra jartzeko.

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

Hona hemen arau-hauste arinak:

- Kontratua betetzerako orduan besterik - gabe noizean behin inperfekzioak izatea.
- Zerbitzua besterik gabe etetea.
- Zerbitzuari atxikitako langileek, lanean dauden bitartean, lotsarik, garbiketarik edo txukuntasunik ez izatea.
- Pleguetan ezarritako gainerako ekintzak eta hutsegiteak, baldin eta arau-hauste larriak edo oso larriak ez badira.

Hona hemen arau-hauste larriak:

- Behin eta berriz eta sistematikoki, zerbitzua eskaintzeko ordutegian atzerapenak izatea.
- Udalak kontratatutako langileen esku utzi dituen baliabide materialak eta azpiegiturak behar ez bezala erabiltzea.
- Arrazoirik izan gabe, formazio eta koordinazio saioretara ez joatea.
- Zerbitzuaren erabiltzaileekin edo Udalaren langileekin oro har istiluak izatea.
- Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren langile edo baliabide guztiak ez edukitzea.
- Gainerako gasturik sorrarazi gabe, zerbitzua aldatzeko edo hobetzeko Udalak ematen dituen aginduak ez betetzea.
- Oso larritzat hartu ezin diren hutsegiteak, eta aldi berean, duten izaeragatik, arau hauste arintzat hartu behar ez direnak hutsegite larritzat joko dira.
- Soroluzeko Udalak eskatzen dituen lan parteak edo txostenak garaiz edo osorik ez aurkeztea.
- Antzemandako akatsen berri ez ematea, edo eskatutako informazioa egiazkoa ez dela ikustea.
- Udalak berariazko baimenik eman gabe zerbitzua aldatzea.
- Erabiltzaileei tratu iraingarria ematea, baldin eta tratu iraingarri horrek hutsegite oso larrien berezko ezaugarriak ez baditu.
- Zerbitzuak koordinatzean eta gestionatzean akatsak egitea, baldin eta ondorio larriak gertatuko balira.
- Eskatutako aseguru polizei dagozkien erreziboak ez ordaintzea.
- Ezarritako neurri zuzentzaileak ezartzeko Administrazioak egindako eskaerei jaramonik ez egitea.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

- Larraldi kasuetan, Udalak ezarritako premiazko neurriak ez ezartzea.
- Eskaintzen diren zerbitzuen ondorioz jakiten diren gaiei buruzko isiltasuna ez gordetzea, baldin eta hori erabiltzaileentzat kaltegarria bada edo norberaren probetxurako erabiltzen bada.
- Hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.

Hona hemen arau hauste oso larriak:

- Eskaini beharreko zerbitzuari ez ekitea edo zerbitzua geldiaraztea, baldin eta horretarako ezinbesteko arrazoirik ez badago.
- Zerbitzua eskaintzerakoan argi eta garbi akatsak edo irregulartasunak egitea, ezarritako baldintzak ez betetzea eta zerbitzua eskaintzerakoan sistematikoki atzeratzea.
- Zerbitzua, osorik edo zatika, esleipendunaren alderdiarekin zerikusirik ez duten pertsonen eskaintzea.
- Kontratataren ardurapean eta mendean dauden langileei dagokionez, Lanaren, Segurtasunaren eta Garbitasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak ez betetzea.
- Hitzez edo egitez erabiltzaileak iraintzea edo erabiltzaileei, haien gurasoei edo bizilagunei tratu iraingarria ematea.
- Zerbitzuen ordenari, araubideari, eskaintzeko erari, eta oro har, zerbitzuen eskaintza arautzen duten arauak buruz Soraluzeko Udalak ematen dituen agindu ofizialak ez betetzea.
- Kontratututako zerbitzuetara atxikita dauden langileek, zerbitzuen erabiltzaileen partetik, edozein ordainsari edo kontraprestazio jasotzea.
- Greba bada, gobernua ezarri dituen gutxieneko zerbitzuak ez betetzea edo zerbitzu horiek behar bezala ez eskaintzea.
- Plegu honetan ezarritako baldintzak edo epeak ez betetzea, horren ondorioz izan daitezkeen bestelako ekintzak baztertu gabe.
- Zerbitzuaren arduradunek emandako argibideak ez betetzea.
- Soraluzeko Udalak egin behar dituen ikuskapen eta zaintza lanei ezezkoa ematea edo lan horiek egiten ez lagatzea.
- Esleipenari atxikitako baliabide materialak eta instalazioak kontserbazio eta funtzionamendu egoera txarrean edukitzea.
- Udalaren baimenik izan gabe zerbitzua lagatzea edo azpi-errentan ematea.
- Bi hutsegite larri edo gehiago egitea.

Zigorak:

- Hutsegite arinak, nolahi ere, ohartarazpen baten bidez zigortuko dira, eta 600 eurora arteko isunak ere jarri ahal izango dira.
- Arau-hauste larriak 601 eurotik 2.000 eurora arteko isunekin zigortuko dira.
- Arau-hauste oso larriak 2.001 eurotik gorako isunak jarriko zaizkie. Isunik handiena, bestalde, fidantzaren zenbatekoaren parekoa izango da. Horretaz gain, kontratua suntsitzeko aukera ere izango da.

Nolanahi ere, kontratua deuseztatzen den kasuetan, Soraluzeko Udalak ez du inolako kalte-ordainik emango.

Zigorak jartzeko prozedura, berriz, ondorengoa izango da:

1.- Zerbitzua dela-eta aurkeztu diren kexa edo salaketa guztiak, gehienez, ere 10 eguneko epean aditzera emango zaizkio kontratatari, honen ustetan zuzenbidean bidezkoa dena argudiatu ahal izan dezan.

2.- Aipatutako epea igaro ostean, Udaleko organo eskudunak, dagokion Sailaren zerbitzu teknikoek egindako txostenak jaso ostean, hala badagokio, kontratistak egoki irizten dion erabakia hartuko du, eta esleipendunari aditzera emango dio, ebazpenean adierazitako epean, hartutako akordioa bete dezan.

Jarritako isunaren aurka edozein motatako errekursoak aurkezten badira ere, ez da zigor hori betetzetik salbuetsiko.

Isunari dagokion kopuru ekonomikoa hilero esleipendunari ordaindu behar zaion fakturatik kenduko da, edo hala badagokio, behin betiko bermetik.

14. KONTRATUA DEUSEZTATZEKO ARRAZOIAK

Kontratua Plegu honetan aurreikusitako deuseztapen arrazoi guztiak direla medio iraugiko da, baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 223, 308 eta 192 artikuluetan aurreikusitako arrazoiengatik ere.

Langileen gutxieneko titulazio akademikoak eta profesionalak kontratuzko betebeharren izaera edukiko dute; horrexegatik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 64.2 artikulua dioenari jarraiki, baldintza hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartu ahal izango da, 223.f artikuluan ezarritako eraginetarako.

Kontratistak errua duelako kontratua deuseztatzen baldin bada, fiantza bahitu egingo zaio, eta gainera, kontratistak Administrazioari kalte-ordaina eman beharko dio sortutako kalte eta galerengatik, behin betiko bermearen zenbatzekoa gainditzen den guztian.

Kontratuaren iraunaldia bukatu ostean, esleipendunak, kontratua bete ahal izateko laga zaizkion instalazioak utzi eta Soraluzeko Udalaren esku laga beharko diru. Horretaz gain, behin betiko bermeaz baliatuko da lagatako ondasunei eragin ahal izan zaizkien kalteak estaltzeko.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioak eskumena izango du kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeko orduan sor daitezkeen zalantzak argitzeko, herri interesa dela-eta kontratua aldatzeko, kontratua bertan behera uzteko erabakia hartzeko eta erabaki horren eraginak zehazteko; betiere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusian ezarritako baldintzen eta eraginaren barruan.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA ERA

Kontratu honen esleipenari dagokion tramitazioa arrunta izango da. Esleipena, gainera, prozedura irekiaren bitartez egingo da, eta esleipenerako hainbat irizpide izango dira kontuan. Horretarako, lehiaketari dagokion era erabiliko da.

Hona hemen kontratua esleitzeko kontuan izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik garrantzia gutxien duenera. Era berean, irizpide bakoitzari dagokion balorazioa ere zehazten da:



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

1.- Eskaintako preziorik hoberena: 48 puntu

Irizpide hau aztertu eta puntuak ematerako orduan, eskaintako zenbatekoak aintzat hartuko dira, ezarritako BEZa kontuan izan gabe.

Gehienezko puntuazioa emango zaio eskaintza ekonomiko merkeenari. Gainerako eskaintzak puntuatzeko, eskaintza merkeenaren koefizientari dagokion emaitza eta lizitatuzailearen eskaintza biderkatuko dira. Lizitatuzailearen eskaintza baloratzeko, irizpideari eman dakizkiokeen puntu guztiak izango dira kontuan. Hau da,

$\frac{Ob \times Z}{Ol}$

Ob eskaintza ekonomikorik merkeena da, eta Ol baloratu beharreko lizitatuzailearen eskaintza. Z, berriz, irizpide hau dela eta gehienez ere eman daitekeen puntu kopurua da.

Aurkeztu diren baliozko eskaintza guztiekin alderatuta, neurri gabeko edo normaletik kanpoko eskaintzen ondorioz bete ezin diren proposamenak direla antzematen uzten duten mugak Sektore Publikoko Legeari Buruzko Araudi Orokorren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoak izango dira.

2.- Haurrentzako Zerbitzua kudeatzeko proiektua: 26 puntu

a) Oinarri teorikoa eta proiektuaren helburuak (Gehienez 4 puntu)

- Proiektuaren, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemarekiko egokitzapena: 2 puntu
- Marko teorikoa, helburuak eta proposatzen diren jarduerak era egokian erlazionatzea: 2 puntu

b) Proiektua udalerraren errealitateara egokitzea (Gehienez 4 puntu)

- Soraluzeko haurren errealitatearen ezagutza: 2 puntu
- Sustapenaren ikuspuntutik interesgarriak diren herriko baliabideak, elkarteak e. a. ezagutzea eta haiekin elkarlana egiteko proposamena egitea: 2 puntu

c) Lan metodologia: (Gehienez 18 puntu)

Zuzeneko arreta emateko proposamena (10 puntu);

- Jarduera arloak garatzeko proposamena: 6 puntu
- Zehar lerroak garatzeko planteamendua: 4 puntu

Zeharkako arreta edo barne lana antolatzeko proposamena (8 puntu);

- Zerbitzua planifikatzeko eta ebaluatzeko planteamendu egokia: 2 puntu
- Koordinazio sistemaren planteamendu egokia 2 puntu
- Zerbitzuaren hedapena egiteko komunikazio planteamendua 2 puntu
- Jakintza kudeatzeko planteamendu egokia: 2 puntu.

3.- Nerabeentzako Zerbitzua kudeatzeko proiektua: 26 puntu

a) Oinarrizko teorikoa eta proiektuaren helburuak (Gehienez 4 puntu)

- Proiektuaren, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemarekiko kokapena: 2 puntu
- Marko teorikoa, helburuak eta proposatzen diren jarduerak era egokian erlazionatzea: 2 puntu

b) Proiektua udalerriaren errealitateara egokitzea (Gehienez 4 puntu)

- Soraluzeko nerabeen errealitatearen ezagutza: 2 puntu
- Sustapenaren ikuspuntutik interesgarriak diren herriko baliabideak, elkarteak e. a. ezagutzea eta haiekin elkarlana egiteko proposamena egitea: 2 puntu

c) Lan metodologia: (Gehienez 18 puntu)

Zuzeneko arreta emateko proposamena (10 puntu)

- Jarduera arloak garatzeko proposamena: 6 puntu
- Zehar lerroak garatzeko planteamendua: 4 puntu

Zeharkako arreta edo barne lana antolatzekeo proposamena (8 puntu)

- Zerbitzua planifikatzeko eta ebaluatzekeo planteamendu egokia: 2 puntu
- Koordinazio sistemaren planteamendu egokia 2 puntu
- Zerbitzuaren hedapena egitekeo komunikazio planteamendua 2 puntu
- Jakintza kudeatzeko planteamendu egokia: 2 puntu.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratatzeko prozedura honetan pertsona naturalek edo juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta euren gaitasun juridikoaren eta jardutekeo gaitasun osoaren jabe badira; eta baldin eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo lan arlokoa egiaztatzen badituzte. Era berean, ez dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehaztutakoaren arabera, kontratatzekeo debekuren batean sartuta egongo.

Era berean, berez edo baimendutako pertsonaren baten bidez parte hartu ahal izango dute; horretarako, askietsitako ahalordea aurkeztu beharko dute. Pertsona juridikoren baten ordezkari gisa, pertsona juridiko hori osatzen duen kideren bat aurkezten baldin bada, agiri bidez, horretarako ahalmena baduela egiaztatu beharko da. Bai kasu batean, bai bestean, ordezkariari arestian zehaztutako kontratatzekeo ezgaitasunek eragingo diote.

Honetaz gain, lizitazio gilearen helburua izan beharko da kontratu honen helburuarekin bat egiten duten jarduerak egitea; eta era berean, lan hori betetzeko adinakoa izango den gaitasun pertsonal eta materiala izatea.

Enpresariak, halaber, enpresa edo lanbide arloko gaikuntza izan beharko dute. Horrela bada, gaikuntza hori jarduera egitekeo edo kontratuaren xede den zerbitzua eskaintzekeo eska daitekeena izango da.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honi dagokion espedientea, baita horri erantsitako dokumentazio teknikoa ere www.soraluze.eus webgunean aztertu ahal izango dira, lizitazioari buruzko iragarkia



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte. Arestiko web gunean pleguak eskuratu ahal izango dira, eta hala badagokio, dokumentazio osagarria ere bai.

Proposamenak, berriz, Soraluzeko Udalak duen Herritarrentzako Arreta Bulegoan (Santa Ana 1, behe) aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera eta 09:00etatik 14:00etara. Horretarako, 20 egun naturaleko epea izango da, lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna baldin bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Epea igaro eta gero aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, Postetxean epea bukatu aurretik entregatu zirela jasotzen den arren. Dena dela, proposamenak onartu egingo dira, eskaintza postaz bidali zen egun berean, bidalketa egunari buruzko ziurtagiria telex, fax, telegrama edo posta elektronikoko bidez, Kontratazio Organoari bidaltzen baldin bazaio.

Proposamena aurkezteak, esan nahi du, lizitatuzaileak inolako zalantzarik gabe onartzen duela Administrazio Baldintza Partikularren eta Baldintza Teknikoen Pleguetan jasotako eduki osoa.

Lizitatuzaileek hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C). gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean honako inskripzio hau idatziko da. "SORALUZEKO UDALERRIKO HAURRENTZAKO (LUDOTEKA) ETA NERABEENTZAKO (GAZTELEKUA) ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LEHIAKETA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak adierazi beharko dira, baita proposamena zein izaerarekin sinatzen duen ere. Halaber, gutun-azal guztiak sinatu egin beharko dira.

"A" gutun-azalak "KONTRATATZEKO AHALMENA ETA GAUDIMENA" izena edukiko du, eta bertan, ondorengo dokumentuak sartuko dira:

a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsonaren edo erakunderen baten izenean jarduten badu, notarioak egindako ahalordea.

b) Lizitaziogilea pertsona juridikoa baldin bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa edo aldaketa eskritura eta identifikazio fiskalerako zenbakia aurkeztuko dira, ezar dakioken merkataritza legediaren arabera, inskripzioa eskatzeko modukoa baldin bada. Inskripzioa eskatu behar ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatze eraketa eskritura, eraketa agiria, estatutuak edo sorrera agiria aurkeztu beharko dira, eta agiritan, jarduera arautzen duten arauak zehaztuko dira. Eta beharrezkoa izanez gero, horiek dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta egongo dira.

Enpresa atzerritarrek jarduteko gaitasuna badutela egiaztatu beharko dute; horretarako, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako eran jardun beharko dute.

c) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehaztutako debekuren batean sartuta ez dagoela azaltzen duen berariazko aitortpena egin beharko da (I. ERANSKINA). Hori dela-eta, aitortpenean, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla jaso beharko da, baldin eta azken bi inguruabar horien gaineko egiaztagiria aurkezten ez badira.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatze, alta agiria aurkeztu beharko da, indarrean dagoen ekitaldiari dagokiona. Horren

ordez, Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zergaren azken errezipa aurkeztu ahal izango da, eta horrekin batera, dagokion matrikulan baxerik eman ez duela egiaztatzen duen aitortpen erantzule bat.

e) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko:

- Lizitazio-iragarkian eta kontratuaren pleguan eskatzen den kopuru berbereko edo handiagoko urteko negozioen bolumena, edota kontratuan ageri den esparruko urteko negozio bolumena edo, horrelakorik ezean, legeak eskatzen duena.
- Negozioen urteko bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordailatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaria Erregistro horretan inskribatuta badago. Hala izan ezean, enpresariak inskribatuta egon behar dueneko erregistro ofizialean gordailatutako kontuak aurkeztuko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresarietako urteko negozio bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen edo urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.
- Laneko arriskuak estaltzen dituen kalte-ordainetarako aseguru bat izan beharko du, eskaintzak aurkezteko epea buaktu arte indarrean egongo dena. Aseguruaren zenbatekoa ez da 600.000,00 €-tik beherakoa izango. Horretaz gain, asegurua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa hartu beharko du, kontratuaren exekuzioak dirauen bitartean estaldura mantentzeko.

f) Kaudimen teknika egiaztatzeko, lizitazio-gileek egiaztatu egin beharko dute ondoko baldintza guztiak betetzen dituztela:

- Azken bost urteetan eskainitako zerbitzu nagusien edo egindako lan nagusien zerrenda, kontratu honen xedearekin bat datozenak. Bestalde, lan horiek exekuzio onari buruzko egiaztagirien bidez abalatu dira. Horretaz gain, gutxienez, bost urteko esperientzia egiaztatu beharko da haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuen arloan.
- Kontratua betetzeaz arduratuko diren langileen gutxienezko titulazio akademikoak eta profesionalak.

1.- Goi mailako prestakuntza, unibertsitate mailakoa ez izan arren (Gizarte Zientzien arloko Goi-mailako Heziketa Zikloak edo Batxillergoa).

2.- Euskara: Zerbitzuari atxikitako langile guztiek C1 maila egiaztatu beharko dute euskararen ezagutzari dagokionean, edo horren baliokidea den titulu ofizialen bat izan. Ziurtagiririk ezean, Udalak euskara-proba egingo die zerbitzuari atxikitako langileei.

g) Enpresa atzeritarrek edozein motatako Auzitegi eta Epaitegi espainiarren jurisdikzioaren pean jarriko direla adierazten duen aitortpena aurkeztu beharko dute, kontratua dela-eta, zuzenean nahiz zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako. Era berean, aitortu egin beharko dute lizitazio-gileei dagokien atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela.

h) Lizitazio-gile guztiek helbide elektronikoa eman beharko dute, lizitazioaren faseei buruzko jakinarazpenak helarazi ahal izateko.

Eskatutako agirien jatorrizkoak edo kopiak aurkeztu ahal izango dira, Administrazioak edo notarioak behar bezala konpulsatuta edo egiaztatuta.

Aldi Baterako Enpresari Elkarten kasuan, elkarte osatzen duen enpresari bakoitzak gaitasuna eta kaudimena badituela egiaztatu beharko du, arestian aipatutako puntuetan



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, esleipendun baldin badira, formalki, ABEE (Aldi Baterako Enpresa Elkarte) bilakatzeko konpromisoa adierazi beharko dute. Era berean, ABEE horren kide bakoitzak kontratuaren zein atal beteko duen zehaztu beharko du proposamenean; hartara, enpresa-elkartea osatzen duten guztiek kaudimena badutela egiaztatzeko.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan inskribatuta dauden kontratistek inskripzioari buruzko egiaztagiria aurkeztu ahal izango dute; eta ondorioz, salbuetsita egongo dira a), b) c) eta, hala badagokio, d) hizkietan zehaztutako agiriak aurkeztetik, eta halaber, Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatetik. Horiek, aitorten erantzule baten bitartez, agerian utzi beharko dute inskripzioak ez duela aldaketarik izan.

Behin kontratua esleitu, eta errekursoak aurkezteko epea igaro ostean errekurtsorik aurkeztu ez baldin bada, proposamenekin batera aurkeztu den dokumentazioa interesdunen esku geldituko da. Hilabeteko epean dokumentazio hori erreklamatzeko ez bada, Udalak suntsitu ahal izango du.

“B” gutun-azalari “MEMORIA TEKNIKO” izena jarriko zaio, eta bertan, honako dokumentu hauek sartuko

Esleipen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, baldin eta dokumentazioaren balorazioa balio-judizio baten menpe badago. Dokumentu horiek 16. baldintzaren 2 eta 3 puntuan zehazten direnak izango dira.

Gutun-azal honetan inola ere ez da sartuko proposamen ekonomikoa; hori, “C” gutun-azalean sartu beharko baita.

Datu horiek “B” gutun-azalean sartzen baldin badira, lizitatzailerak prozedura honetatik kanpo geldituko da, eta ez da irekiko berak aurkeztu duen “C” gutun-azala.

“C” gutun-azalari “PROPOSAMEN EKONOMIKOA” izena jarriko zaio, eta bertan honako dokumentu hauek sartuko dira:

a) Honako eredu honen araberako proposamen ekonomikoa:

Nik,.....(e)k, adinez nagusiak,.....(e)n (.....PK) bizi naizen, eta zenbakidun telefonoa etaNANA ditudan honek, gaitasun juridiko osoaren eta jarduteko gaitasun osoaren jabe izanik, nire izenean, edo(e)n bizi den eta zenbakidun telefonoa etazenbakidun NANA edo IFK dituen(r)en izenean (kontuan izan pertsona fisikoa ala juridikoa den), Soraluzekeo Udalak “Soraluzekeo udalerriko haurrentzako (Ludoteka) eta nerabeentzako (Gaztelekua) Zerbitzuak” kontratatuzeko egin duen deialdiaren berri izan dudanez, honako hau AITORTZEN DUT:

1) Kontratua urteko euroren truke, gehi BEZari dagozkion euroren truke eskaintzeko konpromisoa hartzen dudala.

2) Baldintza Teknikoen Pleguaren, Administrazio Baldintza Berezien Pleguaren eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioaren berri badudala, eta horiek berariaz eta osorik onartzen ditudala.

3) Nik ordezkatzeko dudana enpresak betetzen dituela jarduera irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen betebeharrak guztiak .

.....(e)n, 2017koaren(e)an

Sinadura

Proposamen ekonomikoak ez dira onartuko, baldin Administrazioaren ustetan, eskaintza kontuan izateko ezinbestekoa den informazioa jasotzea galarazten duten hutsegiteak, akatsak edo zirriborroak badituzte.

Kontratazio Mahaia atzera botako ditu aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, lizitazioaren oinarizko aurrekontua gainditzen dutenak edo ezarritako eredu nabarmen aldatzen dutenak. Era berean, Mahaia proposamena atzera botako du, lizitatuak onartzen baldin badu proposamenak bideraezina egiten duen akats edo hutsaltasunen bat duela. Horretarako, Kontratazio Mahaia ebazpen arrazoitua eman beharko du. Ez da atzera botatzeko arrazoi nahikoa izango, ereduaren hainbat hitz kendu edo aldatzea, baldin eta ereduaren zentzua aldatzen ez bada.

b) Kontratu honen xedea dela-eta egin behar diren lanei buruzko azterketa ekonomiko xehatua. Bertan, atal desberdinei buruzko gastuak jaso beharko dira. Horiek horrela egin behar diren lanei buruzko urteko aurrekontua aurkeztu beharko da, zerbitzu bakoitzaren arabera banakatua.

Gutun-azal honetan ezin dira, inola ere, txosten tekniko edo esleipen irizpideei buruzko datuak sartu, baldin eta datu horien balorazioa balio-judizio baten menpe badago; horiek "B" gutun-azalean sartu beharko dira-eta.

Datu horiek "C" gutun-azalean sartzen badira, ez dira dokumentu horiek baloratuko. Hori dela-eta, prezioaren esleipen irizpideari dagozkion puntuak bakarrik emango zaizkio.

19. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

Mahaiburua: Haur eta Gazteen Sustapeneko Sailaren ardura duen teknikaria

Mahaikideak:

- a) Udaleko idazkari kontu-hartzailea.
- b) Udaleko kontabilitate-teknikaria.
- c) Alkate-Udalburua.

Idazkaria: Udaleko funtzionario bat.

Halaber, udal teknikari guztiak parte hartu ahal izango dute Kontratazio Mahaian, baldin eta Mahaia, aholkularitza lanak egiteko, horiek parte har dezatela eskatzen baldin badu.

20. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ostean, Mahaia garaiz eta eraz jasotako dokumentazioa (A gutun-azala) kalifikatuko du; horretarako, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jardungo du.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Hori dela-eta, lizitatzailiek duten gaitasunari eta kaudimenari buruzko argibideak eta dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira. Horiek Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 22. artikulua xedatzen duenaren arabera aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Kontratazio Mahaiak argibideak edo informazio osagarria ahoz eskatuko die lizitatzailerei. Eskabide hau, halaber, Kontratazio Organoaren iragarki taulan iragarriko da. Kontratazio Mahaiak, modu berbera erabiliko du, aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak daudela jakinarazteko. Horiek horrela, lizitatzailiek hiru laneguneko epea izango dute, antzemandako akatsak zuzentzeko, arestiko Araudiaren 81. artikulua dioenez.

Soraluzeko Udalaren kontratatzaile profilean aditzera emango duen eta onartutako enpresa lizitatzaileri bidaliko zaien komunikazioan adieraziko den egunean, tokian eta orduan egingo den ekitaldi publikoan, Kontratazio Mahaiak "B" gutun-azala irekiko du, eta bertan sartutako dokumentazioak sailkatuko ditu. Behin "B" gutun-azalak ireki ostean, edukia balorazioa egiteaz arduratuko den organoari bidaliko dio, eta honek, balorazio txostena helarazi beharko du proposamen ekonomikoa jendaurrean ireki baino lehen.

"C" gutun-azalean aurkeztutako proposamenak Soraluzeko Udaleko kontratatzaile profilean adieraziko den eta onartutako enpresa lizitatzaileri bidaliko zaien adierazpenean aditzera emango den egunean, lekuan eta orduan egingo den ekitaldi publikoan irekiko dira.

"C" gutun-azala ireki aurretik, eskaintza bakoitzean, judizio-balio baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioaren berri emango da.

Ondoren, eta beharrezko txosten teknikoak egin ostean, Kontratazio Mahaiak kontratua esleitzeko proposamena egingo dio kontratua egin behar duen Kontratazio Organoari.

Kontratazio Mahaiak eskaintza ekonomiko egokiena dela-eta egiten duen proposamena tarteko, ez da inolako eskubiderik sortuko, Administrazioaren aurrean, eskaintza ekonomiko egokiena dela adierazi den eskaintza egin duen lizitaziogilearen alde.

Sektore Publikoko kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 152. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, ez da eskaintza ekonomiko egokiena egin duen lizitaziogilearen aldeko esleipena egingo, baldin eta Kontratazio organoak, normaletik kanpokoak diren edo proportziorik gabeko balioak dituelako, proposamen hori exekutatzeko ezinezkoa dela uste izateko arrazoi sendoak baditu.

Normaletik kanpoko edo proportziorik gabeko balioetat hartuko dira, Herri Administrazioetako Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorraren 85. artikulua arautzen dituen kasuak gertatzen baldin badira.

Proportziorik gabekotzat edo normaletik kanpokotzat har daitezkeen eskaintza bat dagoela antzematen denean, entzunaldia eskaini beharko zaio eskaintza aurkeztu duen enpresari, eskaintzaren balorazioa justifika dezan, eta baldintzak zehaztu dituzan, batik bat, kontratuaren exekuzioa posible egingo duen aurrezkiari, zerbitzua exekutatzeko jarriko dituen egokitutako konponbide teknikoak eta bereziki aldekoak diren baldintzei, enplegua babesteko indarrean dauden xedapenen babesari eta zerbitzua eskainiko den lekuan indarrean izango diren lan baldintzei, edo Estatuko laguntzaren bat lortzeko aukerari dagokienez.

Lizitaziogileak lizitazio aurrekontuan izendatzen dena baino industria mozkin txikiagoa lortzeko asmoa duela justifikatzen duten argudioak aurkeztu ahal izango ditu.

21. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio organoak eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztu duen lizitaziogileari ondorengo jarduerak egin ditzala eskatuko dio. Horretarako, hamar laneguneko epea izango da, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

- Behin betiko bermea jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria ere bai.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea, baldin eta proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu.
- Eskatutako aseguru polizen eta ordainagirien kopiak aurkeztea.
- Hitz emandakoaren arabera, kontratua betetzeko jarri edo atxikiko dituen baliabideak benetan jarri dituela egiaztatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 64.2 artikuluari jarraiki.

Egindako eskabidea emandako epearen barruan bete ezean, uste izango da lizitaziogileak bere eskaintza erretiratu egin duela. Kasu horretan, dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitaziogileari. Horretarako, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari erreparatuko zaio.

Kontratazio organoak arestian aipatutako hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo bost lanegunetan esleitu beharko du kontratua, baldin eta lizitaziogileak eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta behin betiko bermea jarri badu.

Inola ere ezin izango da lizitazio bat hutsik laga, pleguan ageri diren irizpideen arabera, onargarria den eskaintzarik edo proposamenik baldin badago.

Esleipena arrazoitua izan beharko da, hautagaiei edo lizitaziogileei jakinaraziko zaie, eta halaber, kontratazioaren profilean argitaratuko da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 139.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, kontratua egiteari uko egiten bazaio edo prozedura honi ezezkoa ematen bazaio, Kontratazio Organoak bakarrik hartu ahal izango du dagokion erabakia, esleipena egin aurretik.

Kasu bietan, hautagaiei edo lizitaziogileei egin dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie.

Kontratua perfektionatzeko, administrazio dokumentu baten bitartez formalizatu beharko da.

Kontratua dela-eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 40.1 artikulua arabera, kontratazioaren arloko errekurtsio berezi bat aurkez daitekeenez, kontratua formalizatu ahal izateko, hamabost lanegun igaro beharko dira, lizitaziogileei eta hautagaiei esleipenari buruzko jakinarazpena bidaltzen zaienetik hasita. Esleipendunari, bestalde, kontratua formalizatzeko eskaera egingo zaio. Horretarako, bost eguneko epea emango zaio gehienez ere, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita, eta betiere, kontratuaren formalizazioa etetea eragingo duen errekurtsioa jartzeko 15 eguneko epea igaro bada.

Emandako epearen barruan, esleipendunari egotz dakizkikeen arrazoiak direla medio, kontratua formalizatzen ez bada, Administrazioak ondorengoa eskatu ahal izango du: behin betiko bermetik, kasuan-kasuan, eskatu duen behin-behineko bermearen zenbatekoa konfiskatzeko.

Era berean, kontratua deuseztatzeko erabakia hartu ahal izango du, interesdunari entzundaldia egiteko aukera eskaini ostean. Halaber, kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatu ahal izango dio kontratistari.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Kontratua esleitu ostean eta errekurtsok aurkezteko epeak igaro eta gero, errekurtsorik aurkeztu ez baldin bada, enpresa lizitatzaileren dokumentazioa, baita A eta B gutun-azaletan sartuta dagoena ere, haien esku geldituko da. Dokumentazioa haien esku gelditu eta bi hilabeteko epean, administrazioak erabakia hartu ahal izango du, enpresa lizitatzailerek aurkeztu bai baina erretiratu ez duten dokumentazioa suntsitu ahal izateko.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuak zerbitzuetako kontratu administratiboen izaera izango du. Horretaz gain, erregulazio harmonizatuaren pean egongo da, eta ondorengo arauen bitartez arautuko da:

- Legegintzako 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duena.
- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudia, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartu zena, eta Herri Administrazioetako kontratazioei ezar dakizkiekeen gainerako arauak.
- Baldintza Administrazio Berezien Plegu hau.
- Baldintza teknikoen plegua.
- Kontratua formalizatuko deneko agiria.

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren eta espediente honi erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanen bat baldin badago, Plegu honetan ezarritakoa gailenduko da.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren ondorioz sortzen diren auziak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta organoak hartutako akordioek amaiera emango diote administrazio bideari. Zuzenean, akordio horren aurka egin ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Hala ere, hala dagokion kasuetan, kontratazio arloko errekurtsu berria jarri ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 40-49. artikuluek ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako errekurtsu guztiak aurkeztu ahal izango dira.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio hau dela-eta, norbanakoen datuak erabili behar badira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren hogeita zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legeari eta Lege hori garatzen duen araudiari dagokionean.

I. ERANSKINA

AITORPEN EREDUA

Nik,.....jaun/andreak, adinez nagusiak,NAN zenbakia, telefono zenbakia eta fax zenbakia ditudan eta bizi naizen honek, honako hau aitortzen dut: jarduteko gaitasun osoa dudala, eta ez nagoela sartuta Sektore Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehaztutako gorabehera batean ere. Eta bereziki, ondokoa aitortzen dut berariaz: ez dudala zigor irmorik jaso laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan egindako arau-hauste oso larriren batengatik, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 20 d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, honako hau aitortzen dut:

- Indarrean dagoen legediak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ditudala, urriaren 12ko Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusiaren 13. eta 14. artikuluen arabera (1098/2001 Errege Dekretua).
- Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zergan alta emanda nagoela, eta zerga horren matrikulan ez dudala bajarik eman.

Eta horrela jasota gera dadin, eta "Soraluzeko udalerriko haurrentzako (Ludoteka) eta nerabeentzako (Gaztelekua) zerbitzuen" lehiaketan dagozkion ondorioak izan ditzan aitortzen hau sinatzen dut, 20__ (e)ko _____aren _____ (e)an.

Sinadura.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

II. ERANSKINA

LANGILEEN SUBROGAZIOA ONARTZEKO EREDUA

Nik ,(e)k, adinez nagusia, zenbakidun NANAa dudana eta(e)n bizi naizen honek,IFK zenbakia duen eta egoitza soziala(e)n duen enpresaren izenean (Posta kodea:....., telefonoa:) honako hau

AITORTZEN DUT:

Pleguen edukiaren berri badudala, eta baldintza berezien plegu honetako III. ERANSKINEAN aipatzen den egoeran dauden langileak subrogatzeko konpromisoa hartzen dudala, eta horretarako, bertan ageri den zerrenda kontuan izango dudala.

Toki-egunak eta eskaintza aurkezteko legezko ordezkari duen pertsonaren sinadura.

Eta horrela jasota gera dadin, eta "Sorluzeko udalerriko haurrentzako (Ludoteka) eta nerabeentzako (Gaztelekua) zerbitzuen" lehiaketan dagozkion ondorioak izan ditzan aitortzen hau sinatzen dut, 20__ (e)ko _____aren _____ (e)an.

Sinadura.

III. ERANSKINA

Langilea	Antzinasuna	Kontratu mota	Lanbide maila	Lanaldiaren ehunekoa
1	2017-02-06	389	2	17 ordu astean
2	2017-02-06	389	2	14 ordu astean
3	2016-09-28	389	3	13,5 ordu astean
4	2016-09-08	501	3	13,5 ordu astean
5	2016-09-08	389	3	13,5 ordu astean

Ezar daitekeen hitzarmena: esku-hartze sozialerako Gipuzkoako hitzarmen kolektiboa (2 eta 3 Taldeak)